



Herrizaingo Saila

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

Departamento de Interior

Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología



ASTELEHENEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2011ko maiatzaren 30a. 8:30.

ASTELEHENA (2011/05/30)

Goizean zerua hodeitsu egongo da eta zaparrada txikiak botatzeko probabilitatea handia da. Eguerditik aurrera oso hodeitsu agertuko da eta zaparrada txikiak botako ditu, noizbehinka ertainak eta trumoiak, zenbait tokitan eta eguerdi aldean gogorak izateko probabilitatea txikia da. Norabide aldakorrek haize ahul-bizia ibiliko da, hego-osagaikoa nagusi; arratsaldean ipar-osagaitik finkatuko da, ahul-bizi, bolada gogor batzuekin kostaldean azken orduetan. Temperatura maximoak jaitsi egingo dira; kostaldean nahikoa eta barnealdean asko.

Tenperaturak (°C)	
	Maximoa
Donostia	21
Bilbao	21
Gasteiz	22
Arrasate	23

ASTEARTEA (2011/05/31)

Egunaren lehengo partean zerua oso hodeitsu egongo da eta zaparrada txikiak botako ditu, noizbehinka ertainak. Arratsaldean atertzen joango da eta ostarteak zabalduko dira, gauean batez ere. Ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin kostaldean eta mendi inguruetan. Temperatura minimoak gutxi jaitsi eta maximoak jaitsi egingo dira; nahikoa kostaldean eta asko barnealdean.

Tenperaturak (°C)		
	Minimoa	Maximoa
Donostia	13	17
Bilbao	14	18
Gasteiz	9	15
Arrasate	10	16

ASTEAZKENA (2011/06/01)

Zerua hodeitsu egongo da goizaldean eta goizean goiz eta kantauri isurialdean noizbehinka zaparrada txikiak botatzeko probabilitatea handia da. Goizean zehar hodeiak gutxitu egingo dira eta zerua hodei gutxirekin edo partez hodeitua geratuko da. Ipar-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogor batzuekin kostaldean eta mendi inguruetan arratsaldean. Temperatura minimoak gutxi jaitziko dira eta maximoetan, aldaketarik ez edo gutxi igoko dira.

OSTEGUNA (2011/06/02)

Goiz-lanbroa. Zerua hodeitsu egongo da eta noizbehinka zaparrada txikiak botako ditu, bereziki kantauri isurialdean eta azken orduetan. Ipar/ipar-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da. Tenperaturak, aldaketarik ez.